



## Inposaketen aurrean, BURUJABETZA.

### Euskal langileok lan erreformari EZ!

Dekretuz onartu den lan erreforma euskal langileriaren kontrako eraso latza dugu eta ondorio benetan larriak ekarriko dizkio langile klase osoari: landunei –kontratazio berriei ez ezik, jadanik lanean daudenei ere eragiteko mekanismoak ezartzen dituelako- eta langabetuei –errefomak ez duelako enplegurik sortuko, suntsitu baino, eta, lan merkatura sartuta ere, enpleguak ez duelako bizi baldintza duinik ziurtatuko-.

Krisialdia ez da erreformaren arrazoia, aitzakia baino, patronalaren boterea ia mugarik gabe handitzeko aitzakia. Bere helburua ez da enplegua sortzea edota prekarietateari kontra egitea, saltzen diguten bezala. Aitzitik, erreforma honek patronalari bere betiko eskakizuna oparitzen dio: bere boterea handitu kaleratzeko, soldatak jaisteko eta hitzarmen kolektiboak ez betetzeko.

#### Enplegua:

- Kaleratzeak erraztu eta merketzen ditu: 45 egunetako kaleratzea desagertu da. 33 egunetako orokortu da, baina azken hau ere ez da aplikatuko, kaleratze guztiak “bidezkoak” izateko arrazoiak guztiz erraztu direlako eta, hortaz, praktikan, 20 eguneko kalte ordaina baino ez da jasoko, urtebeteko mugarekin. Kaleratze aske eta doakoa.

- Espedienteak ez dira lan agintaritzatik pasatu beharko. Enpresek eskuak libre izango dituzte kaleratze kolektiboetarako.

- Administrazio publikoetan ere espedienteak aplikatzeko aukera eman da. Denok erabiltzen eta behar ditugun zerbitzu publikoak murrizten jarraituko dute.

#### Prekarietatea:

- Formazio kontratuak: gutxienez urtebetekoak eta gehienez hiru urtetakoak. Lehen urterako 481 euro hilean eta bigarren zein hirugarren urteetarako 513 euro. Kontratu hauek, gainera, kateatu ahal izango dira.

- Jardunaldi partzialeko kontratuak: jardunaldi partzialekoak izan arren, aparteko orduak egin ahal izango dira. Hau da, jardunaldi osoa bete ahal izango du langile batek praktikan honelako kontratu batez. Kontratu mota hau emakumeei zuzentzen zaie bereziki. Ez da bizi pertsonala eta laborala bateratzeko neurri bat, baizik eta emakumeen enplegua “etxeko soldataren laguntzat” jotzeko eta ardura familiarrak emakumeen ardura eskusibo moduan uzteko.

- “Ekintzaileei laguntzeko” kontratu mugagabea: lehen urtean kaleratzea askea eta kalte ordain gabekoa. Kontratu hau 50 langile baino gutxiagoko enpresetarako da, hau da, Hego Euskal Herriko enpresen %97ak aplikatu ahal izango dute.

- ABLEak (ETTak): Eskumen eta protagonismo gehiago ematen zaie. Honek enplegu zerbitzu publikoak pribatizatzea dakar.

#### Negoiazio kolektiboa guztiz desarautua

Enpresarioak, horrela erabakiz gero, lan baldintzak nahi

duen erara aldatu ditzake. Hitzarmen kolektiboan adostutakoa ez aplikatzeko gaitasun osoa ematen zaio, berdin soldata, ordutegi edota jardunaldian. Honek, gure lan baldintzak okertzeaz gain, soldaten jaitsiera progresibo eta etengabea ekarriko du eta, hortaz, jendartearen pobretze progresibo eta etengabea, enpresa guztiak kosteak jaisteko lehian sartuko baitira, beti ere langileon kontura.

Gure eskubideak zapaltzeaz gain, gure eskubide horiek defendatzeko tresna funtsezkoa den negoziazio kolektiboa ere guztiz zapuztu dute. Negoziatio kolektiboa deuseztatu egin dute. Alde batetik zentralizatu egin dute, estatu mailako hitzarmenak herrialde mailakoen gainetik ipinita, honek dakarren lan baldintzen galerarekin, eta bestetik, enpresari ahalmen osoa eman diote beste eremu batzuetan adostutakoa baliogabetzeko. Derrigorrezko arbitrajea inposatu dute hitzarmen kolektiboak ez aplikatzeko eta, honetaz gain, ultraaktibitatea ezabaturik, hitzarmenak aplikazio gabe geldituko lirarteke indarraldia galdu eta bi urtetara, hau da, bi urte berriztu gabe emanda.

### **Aldebakarreko lan harremanen eredua**

Lan harremanen eredua guztiz aldatu dute erreforma honen bitartez. Aldebakarreko lan harreman eredua inposatu zaigu. Ez dago benetako negoziatio kolektiborik akordioak beharrezkoak ez badira. Eta ez dago negoziatorik enpresarietara egin eta desegiteko botere osoa eta langileok langabeziaren mehatxua besterik ez badaukagu.

Ez da beste erreforma bat, baizik eta gaurko eredia goitik behera deuseztatzen duen erreforma. Estatuak albo batera gelditzea erabaki du, bitartekari eta eskubide bermatzailerak funtzioari uko eginda. Baina aurretik, lan legedia oparitu egin dio patronalari: lan legedia eskubideak bermatzeko tresna izatetik, kapitalaren pribilegioak bermatzeko tresna bihurtu dute.

### **Erantzun sendo eta ozena Hego Euskal Herri osoan**

Erantzun egin behar dugu. Euskal langileok erantzun ozen eta argia eman behar dugu. Ez daukagu ezelako etorkizunik kapitalaren apeta eta eskaera guztiak betetzeko prest dagoen estatu espainolean. Ez gaude prest Madriletik datozen murrizketak, erreformak eta inposaketak onartzeko. Horrelaxe adierazi dugu eta horrelaxe borrokatuko dugu.

Gero eta premiazkoagoa da lan harremanetarako eta babes sozialerako euskal esparrua eraikitzea, horixe baita modu bakarra inposaketa hauetatik guztietatik babesteko: guk geuk erabakitzea eta ezartzea zeintzuk diren gure lan harremanak zuzentzen dituzten arauak, inposaketetatik aske. Gero eta premiazkoagoa da bestelako eredu ekonomiko eta soziala eraikitzea Euskal Herrian, horixe baita modu bakarra Madrilek garamatzen hondamenditik ihes egiteko. Bestela, laster batean Espainiarekin batera hondoratuko gara. Euskal Herrian egin ahal dugu, egoera ekonomikoa ezberdina delako, baina, batez ere, egoera politiko, sindikal eta sozialak bide propioa egiteko aukera ematen digulako. Horretara goaz!

# grebaorokorra

martxo • marzo  
**m29**



## **BASTA de agresiones a la clase trabajadora. Euskal Herria dice NO a la reforma laboral**

La última reforma laboral, adoptada por decreto, supone una agresión en toda regla con consecuencias realmente graves para toda la clase trabajadora: para aquellas personas que tienen empleo -ya que establece mecanismos para que afecte no sólo a las nuevas contrataciones, sino también a las anteriores-, así como para quienes se encuentran en desempleo -ya que la reforma no va a crear empleo, en todo caso va a destruirlo, y de ahora en adelante acceder al mercado laboral no va a asegurar unas condiciones de vida mínimamente dignas-.

La crisis no es la razón de esta reforma, sino su excusa, una excusa para aumentar el poder de la patronal de forma desmedida. Su objetivo no es luchar contra la precariedad o el desempleo, como pretenden vendernos. Esta reforma no es más que el regalo que desde siempre vienen reclamando: más poder para despedir, para bajar salarios y para incumplir los convenios colectivos.

### **Empleo:**

- Facilita y abarata los despidos: el despido con 45 días desaparece y se generaliza el de 33 días. Sin embargo, tampoco se va a aplicar este último, ya que se facilita absolutamente que todos los despidos sean "procedentes", así que en la práctica se aplicará una indemnización de sólo 20 días con un límite de un año. Despido libre y gratuito.

- Los EREs no tendrán que pasar por la autoridad laboral. Las empresas tendrán las manos libres para aplicar despidos colectivos.

- Se extiende la posibilidad de aplicar expedientes también en las administraciones públicas, para continuar recortando en los servicios públicos, servicios que utilizamos y necesitamos todas y todos.

### **Precariedad:**

- Contratos de formación: mínimo de un año y máximo de tres. 481 euros el primer año y 513 el segundo y tercero. Estos contratos, además podrán encadenarse.

- Contratos de jornada parcial: aunque sean de jornada parcial, se podrán hacer horas extras. Es decir, con un contrato así podrán cubrir en la práctica una jornada completa. Esta modalidad está dirigida a las mujeres. No es una medida de conciliación, sino una forma de convertir el empleo de las mujeres en una "ayuda al salario familiar" y de que las "obligaciones familiares" sean obligación exclusivamente de las mujeres.

- Contrato indefinido de "apoyo a los emprendedores": despido libre y sin indemnización durante el primer año. Este contrato está dirigido a empresas con plantillas de menos de 50, es decir, podrán aplicarlo el 97% de las empresas de Euzkadi Herria.

- ETTs: se les da mayor protagonismo y más competencias. Es una forma de privatizar los servicios públicos de empleo.

### **La negociación colectiva completamente desregulada**

El empresario tiene la potestad de cambiar las condiciones laborales como le venga en gana. Se le otorga la capacidad de no aplicar lo acordado por

convenio, ya sea el salario, el horario o la jornada. Esto, además de empeorar nuestras condiciones laborales, provocará una rebaja continua y progresiva de salarios y, por tanto, un empobrecimiento continuo y progresivo de la sociedad, ya que las empresas entrarán en una competición por bajar los precios a costa de las y los trabajadores.

Además de vulnerar nuestros derechos, también han finiquitado un instrumento básico de la clase trabajadora para defender esos derechos. Han finiquitado la negociación colectiva. Por una parte la han centralizado, poniendo los convenios de nivel estatal por encima de los provinciales, con la pérdida de derechos que supone esto, y por otra han otorgado capacidad absoluta a la empresa para dejar sin valor lo acordado. Han impuesto el arbitraje obligatorio para no alicar los convenios y, además, han suprimido la ultraactividad, lo que deja sin aplicación los convenios que lleven dos años sin renovarse.

### **Un modelo de relaciones laborales unilateral**

Han cambiado por completo el modelo de relaciones laborales por medio de esta reforma para imponernos uno completamente unilateral. No se puede hablar de negociación colectiva, si no es necesario llegar a acuerdos. Y no existe negociación colectiva si los empresarios tienen todo el poder de hacer y deshacer lo que les venga en gana y trabajadoras y trabajadores no tenemos más que la amenaza del paro.

NO se trata de otra reforma más, sino de la reforma que acaba con el modelo de relaciones laborales que existía hasta el momento. El Estado ha decidido retirarse, hacer

dejación de su función de mediador y garante de derechos. Sin embargo, antes le ha regalado la legislación laboral a la patronal: de ser un instrumento para garantizar derechos laborales, la han convertido en un instrumento para garantizar los privilegios del capital.

### **Una respuesta contundente y amplia en todo Hego Euskal Herria**

Debemos responder. La clase trabajadora de Euskal Herria tenemos que dar una respuesta alta y clara. No tenemos futuro alguno dentro de un Estado dispuesto a cumplir todas las apetencias y peticiones del capital. Las trabajadoras y trabajadores no estamos dispuestos a aceptar todos los recortes, reformas e imposiciones que nos llegan desde Madrid. Así lo hemos dejado claro y vamos a luchar por ello.

Es cada vez más urgente construir un Marco Vasco de Relaciones Laborales y Protección Social, ya que ésta es la única manera de protegernos de todas estas agresiones: decidir y constituir aquí cuáles son las normas que rigen nuestras relaciones laborales, libres de imposiciones. Es cada vez más urgente construir otro modelo económico y social en Euskal Herria, ya que ésta es la única forma de escapar del desastre al que nos están conduciendo desde Madrid. De lo contrario, más pronto que tarde, terminaremos hundiéndonos junto con España. En Euskal Herria podemos hacerlo. Tenemos una situación económica distinta pero, lo que es más importante, desde nuestra situación política, sindical y social tenemos la oportunidad de marcarnos un camino propio y la fuerza suficiente para recorrerlo. ¡Vamos a ello!

# **huelgageneral**

# **29m**

martxo • marzo